

DOKUMENTAZIOA ENTREGATZEKO ORRIA BETETZEKO JARRAIBIDEAK

1.- Hautaketa-prozesuaren deialdia onartzen duen Errektorearen 2018ko azaroaren 2ko erabakiko oinarri orokorreko 8.3 eta 8.5. oinarrietan, zehaztutakoari jarraiki, orri honetan idatziz jasoko dira agertzen diren merituak, lehiaketa-faserako balioztatu nahi direnak.

2.- Merituak agertzeko orri honekin batera, agertutako merituen egiaztagiriak oinarri orokorreko 8.5.1 oinarrian eta oinarri espezifikoetako 5. oinarrian azaltzen den bezala aurkeztu behar dira.

3.- Lehiakideek izena eman duten hautaketa-prozesu bakoitzeko orri bat aurkeztu behar dute. Hautagai bat hainbat hautaketa prozesutara aurkeztu bada, merezimenduak justifikatzeko dokumentazioa behin bakarrik aurkeztu beharko du, eta gainerako hautaketa prozesuetako eskabide-orrian identifikatu beharko du dokumentazioa zein prozesutan aurkeztu duen.

4.- Agiriak aurkeztea:

Alegatutako merezimenduen jatorrizko egiaztagiriak eta kopiak aurkeztu beharko dira erkaketa egiteko, edo, bestela, organo eskudunak behar bezala erkatutako kopia.

Baldintza horietan berberetan aurkeztu beharko dituzte egiaztagiriak, kautelaz, oposizio fasea gainditu ez dutenek, baldin eta errekurtsioa aurkeztu badute eta horrek hasierako fasea gainditzea ekar badezake.

5.- "Emandako zerbitzuak" atalean zerbitzuak zein herri-administrazioan eman diren adierazi behar da eta zerbitzu-aldiak justifikatzen dituen dokumentazioa erantsi behar da, emandako zerbitzuen iraupena, kategoria profesionala, eta espezialitatea, zehaztuta. UPV/EHUⁿ emandako zerbitzuak ere agertu egingo dira (hots, "X" bat jarriko da dagokion lekuan), baina ez da beharrezkoa izango dokumentazio bidez justifikatzea, zerbitzuok ofizioz zenbatuko baitira.

6.- "Euskara" izeneko atalean, euskararen jakite-maila egiaztatzeke agertutako titulu edo egiaztageria zein den adierazi behar da, oinarrietan zehaztutakoaren arabera. Titulu edo egiaztageriaren kopia erantsi behar da.

UPV/EHUK ofizioz aurkeztuko ditu UPV/EHUⁿ zerbitzuak bete dituzten hautagaien egiaztageriak, baldin eta eskari orrian horrela adierazi badute.